

Kanalak

Merkatu segmentuetara iristeko, kanal hau bereizten dugu: komunikazio kanala. Izan ere, gure zerbitzua ez dago banatu edo saldu beharrik denda fisiko batean. Bezeroarekin edo bezero-segmentu anitzekin harremanetan jartzeko erabiliko ditugun bide nagusia **sare sozialak, aplikazio informatiko bera, hainbat batzar eta hizketaldi eta publizitatea** izango dira.

Sare sozialak oso kanal egokia iruditzen zaigu izugarrizko indarra dutelako guztion bizitzan gaur egun. Ia mundu guztia sare-sozialen bidez hainbat gauza ezagutu ditzake. Modu horretan, gazteek gure zerbitzua ezagutzeko aukera izango dute eta bertan informazio pila bat izango dute eskura. Kanal honen bidez lortu nahi duguna merkatu zabal batera heltzea da. Hainbat sare-sozial desberdin erabiliko ditugu.

Aurretik aipatutako komunikazio kanalen bidez, bezeroek eta kontsumitzaileek haien kezkek edo zalantzak argitu ahal izango dituzte. Baina aplikazioan eskuragarri duten informazioarekin nahikoa izango da, bertan sarrerak erosteko jarraitu behar dituzten pausu guztiak agertzen direlako.

Horrez gain, hainbat batzar eta ekitaldiak egingo ditugu ere, hasiera batean Bilbon eta geroago Euskal Herri mailan. Beste hainbat enpresa bezala, ekitaldiak eginez gure helburua proiektu hau beste lekuetara zabaltzeko aukera izango dugu. Honekin espero duguna da beste herrialdetako pertsonak proiektu honetan parte hartzea aurrera eraman ahal izateko.

Amaitzeko, hasiera batean gure bezeroengana heldu behar gara (hau da, diskotekak) gure aplikazioa aurrera eraman ahal izateko. Horretarako, haiengana joango gara publizitatea egitera zerbitzu honen berri izateko.

